



IKASLEAK MUGIKORTASUNERAKO AUKERATZEKO IRIZPIDEAK, EUROPAKO ERASMUS+ PROGRAMAREN BAITAN

Kurtsoko moduloren bat gainditzeke duen ikasleriak ez du diru laguntza hau eskatzerik.

Izangai bakoitzak lortzen duen azkeneko puntuazioa jarraian adierazten diren ataletan lortutako puntuazioen batuketa izango da, gehienez 10 punturaino:

1. % 30: **espediente akademikoa**: lehengo mailan eta 2. mailako lehenengo ebaluazioan egindako eta ebaluatutako modulu guztien batez besteko nota. (Gehienez 3 puntu).
2. % 20: **helmutako herrialdeko komunikazio-hizkuntzan izangaiak duen ahozko maila**; maila hori ingeles irakasleek determinatzen dute, horretarako prestatutako proba baten bidez. (Gehienez 2 puntu)
3. 40%: ikaslea matrikulatuta dagoen ikastaroko (2.) tutore eta irakasleen balorapena, honako hau kontuan hartuta: (gehienez 4 puntu)
 - **Ardura eta autonomia pertsonala**
 - **Motibazioa** (adibidez: mugikortasunerako prestatzeko assignment-zeregina)
 - **Gora egiteko edo oztupoak gainditzeko gaitasuna**
 - **Gizarte-trebetasunak**

4. % 10: Ingelesean egindako moduluak (gehienez puntu bat)

Azkeneko puntuazioa bigarren mailako lehenengo ebaluazioaren bileran zehaztuko da. Aukeraketa eginda dagoenean, emaitzak interesatuei jakinaraziko zaizkie.

Erasmus+ programaren ikastetxeko arduradunak kanpo utz ditzake aukeratutako ikasleak, baldin eta mugikortasunaren aurreko prozesuan beren konpromisoak betetzen ez badituzte: dokumentazioa entregatzea, bileretara etortzea, ...

Azkeneko asignazioa heziketa ziklo bakoitzetik izena eman duten ikasleen eta eskura dauden enpresen kopuruaren mende egongo da.